OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO HAUARTZARO IKASTOLA ETA URMENDI ARTEKO ESPALOI BATEN PROIEKTUKO LANAK EGIKARITZEKO OBREN KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKI ERRAZTU BIDEZ.

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	2022KO100004

-KARATULA-

1.- KONTRATUAREN XEDEA:

Oiartzungo Haurtzaro ikastola eta Urmendi arteko espaloi baten proiektuko lanen obrak burutzea.

CPV: 45233161-5 (oinezkoen bideak eraikitzeko lanak).

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:

Irekia erraztua.

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:

Ohiko izapidetza.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 89.212,76 euro (BEZ barne).

Kontratuaren balio zenbatetsia: 73.729,55 euro.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA:

2 hilabete.

6.- SAILKAPENA:

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

500.000 euroko balio zenbatetsia baino txikiagoa duten obra kontratuetan kaudimena egiaztatu ahal izango da, bi hauetako modu batean: behean zehaztutako sailkapena egiaztatuz edo plegu honetako 14. klausulan ezarritako kaudimen ekonomiko eta kaudimen teknikoko ukanbeharrak egiaztatuz.

Sailkapena**:**

C TALDEA 3 AZPITALDEA 1 KATEGORIA
G TALDEA 6 AZPITALDEA 1 KATEGORIA
I TALDEA 9 AZPITALDEA 1 KATEGORIA

(773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren zenbait manu aldatzen dituena)

7.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:

Ez da eskatzen.

8.- BEHIN BETIKO BERMEA:

Esleipen prezioaren % 5, BEZ kanpo.

9.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:

20 egun natural, **Kontratatzailearen profilean** (**www.oiartzun.eus)**en iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

10.- ALDAERAK

Ez dira onartzen.

11.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

Bakarra, proposamen ekonomikoa, 100 puntura arte baloratuko dena.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

OIARTZUNGO UDALA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.- Agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea Oiartzungo Haurtzaro ikastola eta Urmendi arteko espaloi baten proiektuko lanen obrak burutzea da, 2022ko maiatzaren 25ean 700 zenbakia duen alkate Dekretuz onartutako obra-proiektuaren baitan. Aipatu proiektua agiri honen zatitzat hartuko da eta, espedientean agertzen den dokumentazio teknikoarekin batera, kontratu-izaera izango dute.

Kontratuaren gaiari dagokion nomenklaturaren kodifikazioa honakoa da:

CPV: 45233161-5 (oinezkoen bideak eraikitzeko lanak).

2.- Kontratu honen xedeak lote bakarra osatzen du.

3.- Ez da onartuko eskaintza alternatiboen proposamenik.

2. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

1.- Agiri honetan aipatzen diren obrak burutzeko epea **BI (2) HILABETEkoa** izango da. Epe hori zuinketa egiaztapen akta izenpetu eta hurrengo egunetik kontatzen hasiko da.

2.- Obrak epe horretan amaitzen ez badira, kontratistak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta administrazioak aurretik ohartarazi ez.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

1.- Kontratuaren gehienezko aurrekontua 73.729,55 eurokoa da, BEZari dagozkion 15.483,21 euro gehituz, **guztira 89.212,76 euro.** Eskaintzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Interesatuek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere sartuta daudela ulertuko da. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

Halaber, kontratuaren gehienezko aurrekontuan sartuta daude Segurtasun eta Osasuneko Planari, Kalitate Kontrolari eta Hondakinen Kudeaketaren Kontrolari buruzko prezioak.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

2.- Obrak burutu bitartean, Administrazioak onartutako proiektuan adierazitako prezio unitarioak egongo dira indarrean, eskaintzaileak egindako eskaintza ekonomikotik ateratzen den esleipen-koefizientea aplikatu eta gero.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, finantzaketa aurreikusia dago, aurtengo ekitaldiko ondorengo aurrekontuaren partidaren kargura:

1 0502.601.153.20.05 2022 (4247) Haurtzaro ikastola eta Urmendi arteko espaloi baten proiektuko lanen gastua

5. ORDAINTZEKO MODUA

1.- Kontratuaren prezioaren ordainketa Obren Zuzendariak hilean egindako obrei buruzko ziurtagirien bidez egingo da.

Obren ziurtagiriak egin eta gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko dira.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Oiartzungo Udala atxikitua baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200631
2. Organo Kudeatzailea: L01200631
3. Unitate Izapidetzailea: L01200631

2.- Era berean, fakturarekin batera, langileen nominak eta gizarte-segurantza ordaindu direlako egiaztagiriak ere aurkeztu beharko ditu (kasuan-kasuko bankuak zigilatutako nominak, TC1 eta TC2 orriak eta kontratatutako pertsonen zerrenda sexu arabera bereizita). Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian agertzeagatiko ziurtagiri negatiboa (Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 42. artikuluan aipatzen den ziurtagiria). Halaber, kontratazio-organoak agiri osagarriak eskatu ahal izango ditu, enpresa esleipendunak betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

Kontratu honen xede den prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez da prezioaren berrikuspenik egingo.

7. BERMEAK

a) Behin-behineko bermea.- Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

b) Behin-betiko bermea.- Kontratu honen lizitazioan proposamen ekonomikorik onuragarriena aurkezten duen eskaintzaileak, hartuko dituen konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, esleipenaren zenbatekoaren (BEZ gabe) %5eko baliokidea.

Berme hori jartzeko epea 7 laneguneko izango da, kontratua esleitu dela jakinarazi den egunaren biharamunetik hasita. Bermea jartzeko modua, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke, beti ere aurkezten den dokumentua originala bada. Eskaintzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, udalak ez du esleipena bere alde egingo eta ulertuko da lizitatzaileak eskaintza kendu duela, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ gabe) %3ko zenbatekoa eskatuko zaiolarik.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), Euskadiko kontratazio-plataforman dagoena.

9. LIZITATZAILE-ERREGISTRO OFIZIALA

SPKLren 159.4.a) artikuluaren arabera, prozedura erraztu bidezko lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena eman beharko dute, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denerako, konkurrentzia mugatzen ez bada betiere. Ondorio horietarako, onargarritzat hartuko da, halaber, lizitatzailearen proposamena, dagokion erregistroan izena emateko

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

eskaera eta horretarako behar den dokumentazioa aurkeztu dituela frogatzen duena, baldin eta eskaera eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Inguruabar hori frogatzeko, kasuan kasuko erregistroak emandako eskaera hartu izanaren agiria eta aginduzko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizuneko aitorpena aurkeztuko dira.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematen duten lizitatzaileek ez dute aurkeztu beharko, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago, kontratatzeko baldintzak (nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, profesional edo enpresa gisa duten gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta sailkapena) betetzen dituztela egiaztatzeko frogagiririk, ezta erregistroan jasota utzi beharreko kontratatzeko debekuren baten pean ez daudela egiaztatzeko frogagiririk ere.

SPKLren 139.1. artikuluaren arabera, proposamenik aurkezteak berekin dakar Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetako datuak kontsultatzeko baimena ematea Kontratazio Mahaiari eta Organoari.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

1.- Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak agiri honetako 14.2. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek bere kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, arestian aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

2.- Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

3.- Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

4.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Gainera, proposamen bat bakarka aurkeztu duen lizitatzaileak ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik aurkeztu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan azaldu. Lizitatzaileren batek baldintza hauek betetzen ez baditu, ez dira onartuko hark sinatutako proposamen guztiak.

5.- Proposamena aurkeztearekin lizitatzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela zerbitzua kontratatzeko ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak.

11. PARTE HARTZE ESKAERAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Oiartzungo Udalean (Done Eztebe Plaza 1), aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00 arte lanegun guztietan, proposamenak aurkezteko epea bukatu arteko lanegun guztietan eta baita udalaren Kontratatzailearen Profilean ere www.oiartzun.eus helbidean.

Epea: Eskaintzaileek, beraien **proposamenak**, **Kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus)**en iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita **HOGEI (20) EGUN NATURALEKO epean aurkeztu beharko dituzte.**

2.- Proposamenak www.contratación.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira.

3.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio baldintza-agiri honetako **III. Eranskinean** jasotakoari.

4.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira klausula honetan adierazitako atalak, horietan adierazten baita eskaintzetan jaso beharreko dokumentu-edukia.

5.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira: horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

11. BIS. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, artxiboaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 80.1 artikulua).

ARDURAPEKO AITORPENA ETA ESKAINTZA EKONOMIKOA

Aurkeztu beharreko artxiboa bakarra izango da eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

1.- **Erantzukizunpeko adierazpena**, agiri honen **I. Eranskineko** ereduaren arabera.

** Prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean, Kontratazio Organo edo Mahaiak egiaztagiri guztiak edo zati bat aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz, kontratua esleitu aurretik betiere.*

*** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, Pleguko I. Eranskineko eredua jarraituz.*

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxienezko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

**** Atzerriko enpresek, SPKLren 67. eta 68. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*

Erantzukizunpeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

2.- **Proposamen-eredua**, agiri honen **II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

Aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko oharrak:

** Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.*

*** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.*

**** Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.*

***** Kontratuaren esleipena jakinarazi eta errekurtsoak jartzeko epeak igaro ondoren, eta errekurtsorik jarri ez bada, interesdunen eskura geratuko da proposamenekin batera doan dokumentazioa. Esleipena jakinarazten zaien egunetik aurrera hiru hilabetetan dokumentazioa jasotzen ez badute, Administrazioak ez du zaintzen jarraitu beharrik izango.*

12. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio-mahaiaren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko.

2.- Kontratazio Mahaiak irekiko ditu proposamenak dakartzaten artxibo elektronikoak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. artikuluaren arabera dagokion ordenean, bat baino gehiago direnean, pleguak finkatzen dituen esleipen irizpideak balioztatzeko aplikatu beharreko metodoaren arabera.

Kontratazio Mahaiaren jarduna lizitatzaileek beren eskaintzak egiteko aurkeztu beharreko artxibo elektronikoen araberakoa izango da. Izan ere, prozeduraren barruan ez bada finkatzen balio iritzi bidez kuantifikatzeko esleipen irizpiderik, artxibo elektroniko bakarra aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, eta, prozeduraren barruan balio iritzi bidez kuantifikatzeko esleipen irizpideak finkatzen badira, berriz, bi. Horiek horrela, ondoko atalaren araberakoa izango da Kontratazio Mahaiaren jarduna.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

3.- Nolanahi ere, kontratazio-mahaiak Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe plaza 1) irekiko du artxibo elektroniko bakarra edo "A" artxibo elektronikoa kasuan, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hau, bai gerta litezkeen aldaketak kontratugilearen perfilean argitaratuko dira (www.oiartzun.eus) helbidean. Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat.

4.- Prozeduraren barruan balio iritzi bidez kuantifikatzeko esleipen irizpideak finkatzen badira, erantzukizunpeko adierazpena eta balio iritzi bidez balioztatzeko irizpideen eskaintza dakartzan artxibo elektronikoa irekiko du Kontratazio-mahaiak. Artxibo elektroniko horretako dokumentazioa Kontratazio-organoko zerbitzu teknikoei helaraziko zaie, txostena egin dezaten.

Egintza berean, Kontratazio-mahaiak kalifikatu egingo du aldez aurretiko baldintzak bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa eta lizitatzailearen adierazpen arduratsua, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarrita dauden baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Kontratazio-organoak edo kontratazio–mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin eta ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru laneguneko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo –mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

5.- Kontratazio Organoak garaiz argitaratuko du kontratatzailearen perfilean, www.oiartzun.eus helbidean, noiz izango den irizpide automatikoei dagozkien eskaintzak irekitzeko egintza publikoa.

Egintza horretan adieraziko du Mahaiak zer proposamen onartu diren, zer proposamen baztertu diren eta zergatik baztertu diren horiek. Era berean, jakinaraziko du nola balioztatu dituen balio iritzi bidez balioztatzeko esleipen irizpideak; eta, azkenik, irizpide automatikoak ireki eta irakurriko ditu.

Egintza publikoa amaitutakoan, bilkura berean, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu Mahaiak. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Ustez nabarmenki baxuegia den eskaintzarik identifikatzen bada, SPKLren 149. artikuluak arautzen duen prozedurari jarraituko dio Mahaiak, baina lizitatzaileek dagokion komunikazioa bidali eta bost laneguneko epea izango dute, gehienez ere, beren eskaintzak justifikatzeko.

6.- Gero, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Mahaiak kontratazio-organoari, puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde; eta, Lizitatzaileen eta

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

Enpresa Sailkatuen Erregistroan, zera egiaztatuko du esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestela, dagokion sailkapena; eta kontratatzeko inongo debekuren pean ez egotea.

Gainera, kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio puntuaziorik onena ateratzen duen enpresari, baita, dagokionean, Lizitatzaileen Erregistroan ez dagoen beste edozein dokumentu ere, plegu honen 14. klausulak ezartzen dituen terminoetan.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu honen esleipena prozedura ireki erraztu bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 159. artikulura ezarritakoarekin bat etorriz.

Esleipena ondorengo irizpideak kontuan harturik erabakiko da:

- BALORAZIO-IRIZPIDEA: AUTOMATIKOKI APLIKAGARRIA (100 puntu).

Eskaintza ekonomikoa.

Eskaintzen balorazioa ondoren zehazten den formula matematikoaren arabera egingo da:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{Pb}{Po} \times 100$$

Po= Balioesteko eskaintza ekonomikoa

Pb= Eskaintzarik baxuena

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren) 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak ere. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

14. KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

14.1 Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.

Eskaintzak baloratutakoan, Kontratazio mahaiak Kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, aurreko klausulan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezioa erlazio hoberena duen eskaintza bereizita.

14.2 Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela arrazoitzen duen dokumentazioaren aurkezpena

Esleipen-proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio SPKLren 159.6. artikuluaren ezarritakoaren arabera eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari (edo esleipendun izateko proposatzen den aldi baterako enpresa elkarteko enpresa guztiei, dagokion kasuan), 7 laneguneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna, osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

d) Ekonomia jardueren gaineko zerga: ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

e) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko honako dokumentazioa aurkeztuz:

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

Lizitatzaileek berdin egiaztatu ahal dute beren kaudimena ondoren zerrendatzen diren termino eta bitartekoetan kaudimen ekonomiko, finantzario eta profesionalaren betekizun espezifikoen bidez edota Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emandako sailkapen ziurtagiria, obra-kontratista gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena, ondorengo sailkapenarekin:

C TALDEA 3 AZPITALDEA 1 KATEGORIA
G TALDEA 6 AZPITALDEA 1 KATEGORIA
I TALDEA 9 AZPITALDEA 1 KATEGORIA

(kat. K, E.D. 773/2015).

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, bitarteko **hau erabilita egiaztatu beharko da:**

Kontratatu nahi den eremuan, herri bideen birgaitze lanei dagokienean, lizitatzailearen urteko negozio bolumena, azken hiru urteetan bolumen handieneko urteari dagokiona, **110.594,32** euro edo handiagokoa izan behar du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, -onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak- egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

Kaudimen teknikoa, bitarteko **hau erabilita egiaztatu beharko da**:

Azkeneko bost urteetan egindako obra nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz. Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa **51.610,68 euroren** berdina edo handiagoa izatea, kontratuaren objektu den obraren talde bereko edo azpitalde bereko obratan, edo azpitalde desberdinetako lanak daudenean garrantzi handiena duen talde edo azpitalde bereko obratan.

Zerrendan adierazitako obren artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

500.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten kontratuetan, **kontratista enpresa berria baldin bada**, halakotzat hartuta bost urtetik behera dituena, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

*** Lanak egiteko garaian edukiko duen makinaria, materiala eta ekipo teknikoa aipatzen duen aitorpena**, eta **bidezkoak** diren egiaztagiriak erantsiko zaizkio.

Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.

Sailkapenaren betekizuna betetzen den baloratzeko balioztatzeko, taldean parte hartzen duten enpresariei dagokienez, kontuan hartuko dira, arauz zehazten den moduan, haietako bakoitzaren ezaugarri bateratuak, berei dagokien sailkapenetan adieraziak. Nolanahi ere, bateratzeko, enpresa guztiek obra-enpresaren sailkapena lortu beharko dute aurretik, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 69. artikuluaren 5. atalean espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako eta sinatu duten estatuetako enpresarientzat finkatutakoaren kalterik gabe.

Sailkapenak bateratzeko erregimena arauz finkatuta dagoena izango da.

Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarteak eskritura publikoan egiaztatu beharko du eraketa, eta elkarte horri emandako IFZ ere egiaztatu beharko du, kontratua bere alde esleituz gero. Nolanahi ere, elkarteak kontratua iraungo arte iraun beharko du.

** Aurreko dokumentu horiek guztiak jatorrizkoan aurkeztu ahal izango dira, edo bestela, kopia kauto edo konpultsatuetan edo fotokopia arruntetan. Alabaina, azkeneko kasu horretan, aipatutako dokumentazio horren jatorrikoak edo kopia konpultsatuak kontratua esleitu aurretik aurkeztu beharko ditu eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak.*

** Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.*

f) Dagokion **behin betiko bermearen** aurkezpena

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZ kanpo) exijituko zaio zehapen-kontzeptuan, SPKLren 71. artikuluko 2. ataleko a) letran xedatutakoaren kalterik gabe. Kasu horretan, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren alde esleitzeko proposamena egingo da, eta 7 laneguneko epea emango zaio horri, eskatzen zaion dokumentua aurkeztu dezan.

14.3 Esleipena

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

1.- Behin betiko bermea jarri eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, aurretik Kontu-hartzailetzak gastuaren konpromisoa fiskalizatuta, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost lanegunetan esleituko du kontratua.

2.- Esleipena motibatua izango da, izangai edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus).

3.- Kontratazio-organoak esleitu gabe deklaratu ahal izango du lizitazioa, bere kasuan, kontratazio-mahaiak proposatuta, baldin eta plegu honetan agertzen diren irizpideak kontuan hartuta eskaintza edo proposamen onargarririk ez badago.

4.- Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, SPKLren 153.3 artikuluaren arabera zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

5.- Kontratuaren esleipena honako epe maximoan egingo da: 15 egun natural, esleitzeko irizpide bakarra prezioa bada, edo bi hilabete, beste irizpiderik ezarri bada, proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren eskaintza kentzeko.

6.- Kontratua Aldi Baterako Enpresen Elkarte bati esleitzen baldin bazaio, ABE horrek bere eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan eta Elkarte horri emandako IFZ-rekin, kontratua formalizatzeko emandako epean.

15. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, eta zehatz-mehatz lizitazioaren baldintzetara egokituko da. Aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publikoan jasotzea eska dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 lanegun baino gehiagokoa izan, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta, esleipendunak Administrazio honetara etorri beharko du kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko.

Kontratua formalizatu ondoren, Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratuko da.

Azkenik, formalizazio dokumentuan jasotzen den epe barruan (sinatu eta gehienez hilabetera), esleipendunak Administrazio honetara etorri beharko du proiektuaren zuinketa egiaztatu eta dagokion akta sinatzera. Une horretatik aurrera, kontratuaren

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

gauzatze epea kontatzen hasiko da.

Era berean, kontratuaren formalizaziotik hamabost eguneko epean hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du esleipendunak:

- **Segurtasun eta Osasun Plana**.
- **600.000** euroko gutxieneko estaldura duen **Erantzukizun Zibileko Aseguruaren** egiaztagiria, obren sustatzaile bezala Oiartzungo Udala sartuz. (**Baldintza Agiriaren 19. klausularen** arabera).
- **Eraikuntzako Arrisku Orotako aseguruaren** egiaztagiria. (**Baldintza Agiriaren 16.6. klausularen** arabera).

III. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

16. KONTRATUA BURUTZEA

1.- Kontratua gauzatzen hasi baino lehen, esleipendunak idatziz egiaztatu beharko du kontratuaren xedeko jarduerarako **arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina duela, baita laneko zentroan beren zerbitzuak emango dituzten langileei dagokionez informazio eta formazio alorreko obligazioak bete dituela**, urtarrilaren 30eko, 171/2004 Errege Dekretuan jasotzen denarekin bat, enpresa-jardueren koordinazio alorrean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko, azaroaren 8ko, 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duenak.

2.- Zuinketa egiaztapen akta izenpetzearekin batera hasiko da obra kontratuaren burutzapena, eta hori HIRU ASTEKO epean egingo da, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 197. artikuluaren baitan, kontratua gauzatzea kontratistaren arrisku eta zorira egingo da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, SPKLaren 239. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

4.- Obrak onartutako Proiektu Teknikoarentzako lotura zorrotzarekin gauzatuko dira, kontratuan ezarritako klausulen eta agiri honetan dauden baldintzen arabera, bai eta SPKLaren eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoaren arabera. Bereziki, kontratatuko obrak kontratazio organoak kontratistari haiek interpretatzeko eman dizkion jarraibideen arabera gauzatuko dira, eta baita Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

5.- Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

ondorioz, Administrazioak kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela uste badu, kontratua betetzearen ordena ona edo behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

6.- Esleipendunak **Eraikuntzako Arrisku Orotako asegurua** kontratatu behako du egindako eta egiten ari diren obrek izan ditzaketen kalteak estaltzen dituena, eta hor sartuko du aseguratu moduan Udala, eta estaldura hauek estaliko ditu:

1) Hauetako arriskuetatik datozen kalteak, sutea, tximista, leherketa, lapurreta, lapurreta, espoliazioa, trebetasun falta, arduragabekeria, ekintza bandalikoak eta asmo txarrekoak, eta naturatik eta/edo izenik gabeko beste edozein arriskutatik etorritako kalteak.

2) Hauetatik datozen berme gehigarriak:
- Diseinu akatsa, fabrikatzailearen arriskua.
- Ordu bereziek, obra hondakinak kentzeak, zerbait eraisteak, agintariek hartutako neurriek eta abarrek sortutako gastuak.
- Lehendik zeuden ondasunei egindako kalteak.

Aseguraturik geratuko dira eraikitzeko aldian gertatutako zerbaiten ondoriozko galerak edo kalteak, bai eta garai hartan edo geroago gertatzen direnak ere, obra kontratuan jarritako betebeharrak zuzen betetzeko egindako lanen exekuzioaren ondorioz.

Polizaren mantentze aldia izango da, gutxienez, urte batekoa, obren onarpena egiten denetik hasita.

17. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1.- Kontratuko parte diren gauzatzeko baldintza berezi guztiak berdin-berdin eskatuko zaizkie haren gauzapenean parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

2.- Kontratua gauzatzeko betebehar bereziak jarraian adierazten direnak dira:

17.1. ENPRESA KONTRATISTAK LAN, GIZARTE-SEGURTASUN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK.

1.- Kontratistak lan arloan, gizarte segurantza arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapen legezko, arauzko eta konbentzional guztiak bete behar ditu. Zehazki, Gipuzkoako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak aplikatu beharko ditu, indarrean leudeken eta hartan xedatutakoa hobetuko luketen enpresako beste hitzarmen edo itun batzuen kalterik gabe, bere erantzukizun esklusiboa izanik lan-istripuekin lotutako oro. Zehazki, zuzen, zorrotz eta bere kontura bete behar du Segurtasun eta Osasun

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

Plana, eraikuntza obretan segurtasun eta osasuneko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan eta plegu honetan xedatutakoaren arabera idatzia eta onartua izan behar duena. Erakunde kontratatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango enpresa kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen.

2.- Enpresa kontratistak, era berean, egiaztatu beharko du, azpikontratatutako enpresei datu egokiak eskatu ostean, enpresa horiek ere obrak gauzatzen diren bitartean lan eta Gizarte Segurantza arloan indarrean diren xedapenak aplikatzen dituztela eta, zehazkiago, aipatutako Gipuzkoako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzak betetzen dituztela, indarrean leudeken eta hartan xedatutakoa hobetuko luketen enpresako beste hitzarmen edo itun batzuen kalterik gabe, eta baita segurtasun eta laneko osasun arloko betebeharrak aplikatzen dituztela ere.

3.- Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Kontratuaren egikaritzeak irauten duen bitartean, enpresa esleipendunak kontratura atxikitako langileen lan-baldintzak mantendu beharko ditu derrigorrez aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren arabera, horiek okertu gabe; eta hori, hitzarmen kolektiboei indarraldia amaitzeari buruz aurreikuspen legezko edo konbentzionalak aplikatzearen ondorioz aipatu hitzarmenak ondoren indarraldia galtzeko aukeraren kalterik gabe. Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko – halakorik gertatuz gero – berehalako unean hitzartuta zeuden lan-baldintzak mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Kontratistak Baldintza Ekonomiko-Administratibo zehatzen agiriko ezaugarri taulako 5.2. klausulan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratazio organoari, hori zuritzeko.

4.- Lizitatzaileek, beren eskaintzan zehaztu beharko dute kontratuko objektua den jarduera egiten duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko dieten, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Horrez gain, kontratua adjudikatu ondoren, langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko dute.

5.- Enpresa kontratatista behartuta egongo da informazioa ematera, baldin eta eskatzen bazaio informazioa emateko kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan zer lan baldintzak aplikatzen zaizkien.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

6.- Kontratura atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, adjudikazioaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoak ez direnak, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari.

7.- Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa esleipendunaren konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

8.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri eman beharko dio kontratazio organoari.

9.- Baldintza hauek kontratuaren nahitaezko betebeharrak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginetarako, eta horrexegatik, baldintza hauek ez betetzeak kontratuaren ebazpena ekarriko du.

Kontratuaren parte diren exekuzio baldintza berezi guztiak era berean eskatuko zaizkie kontratuaren exekuzioan parte hartuko duten kontratista guztiei.

17.2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOKION BALDINTZAK

1**.-** Enpresa esleipendunak, kontratua egikaritzean, ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten neurriak, enplegurako sarbideari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, kalitateari, lan egonkortasunari, eta lanaldiaren iraupenari eta antolakuntzari dagozkienak, baita bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateratzen laguntzen dietenak ere kontratua egikaritzera atxikitako langileei, 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoan, xedatutakoari jarraikiz.

2.- Enpresa esleipendunak hizkera ez sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

3.- Espresa edo erakunde esleipendunak bermatuko du egikaritzeko hamar langile baino
gehiago behar dituzten kontratuetan sexu jazarpena edo sexu arrazoiengatiko jazarpena
ekiditeko neurriak hartzen direla.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

4.- Baldintza hauek kontratuaren egikaritzarako betebehar bereziak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginetarako, eta horrexegatik, baldintza hauek ez betetzeak zigor sistema aplikatzea ekarriko du.

17.3. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Azpikontratazioari dagokionez, SPKLaren 215, 216 eta 217 artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

2.- Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi beharko dio Administrazioari azpikontratuak egiteko asmoa, prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratista nor den zehaztuz, eta, era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatu beharko du. Azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia baldin badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharko.

Udalak egiaztatu ahal izango du esleipendunak, azpikontratista edo hornitzaile guztiei egin behar dizkieten ordainketak zorrozki egiten dituztela.

Horrelakoetan, kontratista esleipendunak Udalari, eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza bidaliko diote haiek parte hartzeko kontratua gauzatzen denean, eta, horrekin batera, baita haietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, betiere ordaintzeko epearekin zerikusi zuzena badute. Halaber, Udalak eskatuta, haiei egin beharreko ordainketen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dituzte, prestazioa bukatutakoan, eta 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ordaintzeko ezarritako legezko epeen barruan, aplikagarri zaionean.

3.- Enpresa azpikontratistak soilik enpresa kontratista nagusiaren mende geratuko dira. Horrenbestez, azken hori izango da kontratuaren egikaritzearen gaineko erantzukizun osoa hartuko duena administrazioaren aurrean, baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiriari, kontratuaren terminoei eta gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzeari dagokionean ere bai.

4.- Baldintza hauek kontratuaren egikaritzarako betebehar bereziak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginetarako, eta horrexegatik, baldintza hauek ez betetzeak **Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 215.3. artikulua aplikatzea ekarriko du, honetan aurreikusten diren ondorioekin.**

17.4. HIZKUNTZA-BALDINTZAK

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Oiartzungo Udalean hizkuntzen erabilerari buruz indarrean dagoen araudia honako hau da: Oiartzunen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantza (1993an Osoko Bilkurak onartua) eta Oiartzungo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (V. Plangintzaldiari dagokiona, 2013ko abenduaren 18an onartu zuen Osoko Bilkurak, eta 2017ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean).

Halaber, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu, eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen." Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez.

2.- Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan-hizkuntzaren araberakoak izango dira.

Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan, aipatutako araudiari jarraikiz. Halaber, herritarrekin zuzeneko harremana duten zerbitzuak lehentasunezkoak dira udalarentzat, hizkuntza normalkuntzari dagokionez.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Kontratazio gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekin edo, oro har, jendearekin harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera jokatuko da: zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira. Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokienez.

3.- Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena**:

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 62 eta 210 artikuluei jarraikiz:

a) Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

b) Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

4.- Hizkuntza-baldintzak ez betetzearen **ondorioak**:

Baldintza hauek kontratuaren nahitaezko betebeharrak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen eraginetarako, eta horrexegatik, baldintza hauek ez betetzeak kontratuaren ebazpena ekarriko du.

5.- **Eskakizun zehatzak:**

Hizkuntza-paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Administrazioarekiko erabilera:

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) administrazioaren lan-hizkuntzaren araberakoak izango dira. Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

18. KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 214. artikuluan jasotako ondorengo mugekin eta baldintzekin:

a) Kontratazio-organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena.
b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20a eginda izan behar du.
c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze-fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon.
d) Esleipendunaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan jaso beharko da.

3.- Lagapen- hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

19.KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da kontratua-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Halaber, obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura izango da edozein pertsonari, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi eragindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

Horretarako, eta obrak gauzatzen hasi aurretik, enpresa esleipendunak **600.000 euroko** gutxieneko estaldura duen **Erantzukizun Zibileko Asegurua** baduela egiaztatu beharko du, obren sustatzaile bezala Oiartzungo Udala sartuz.

20. KONTRATUA ALDATZEA

1.- Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLren 205. eta 242. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharreko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLren

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLren 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

2.- SPKLren 242. artikuluaren arabera, ez dira aldaketatzat joko:

i. Gehiegizko neurketak (lanak behar bezala egiterakoan, proiektuan aurreikusitako unitateen kopurutik desberdinak izatea); betiere, guztizko gastua ez bada igotzen hasierako kontratuaren % 10 baino gehiago. Nolanahi ere, obra amaierako ziurtagirian adieraziko dira gehiegizko neurketak.

ii. Prezio berriak sartzea, Legeak eta hura garatzeko arauek finkatzen dituzten prozedurak jarraituz, kontraesanezko moduan finkatutakoak; betiere, ez badakarte kontratuaren guztizko gastua igotzea eta ez badagozkie guztira hasierako aurrekontuaren % 3 baino gehiago diren obra unitateei.

21. OBRA ZUZENDARIA ETA KONTRATUAREN ARDURADUNA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluan aurreikusten diren funtzioak beteko dituen kontratuaren arduradunak, kontratazio organoak izendatuko duenak, lege beraren 237. artikulutik 246.artikulura aurreikusten diren funtzioak beteko ditu, obra zuzendariari egokitzen zaizkionak, kontratatutako obraren egikaritze zuzena eman dadin beharrezkoak diren zuzendaritza, ikuskatze, egiaztapen eta zaintzara bideratuak.

Kontratuaren arduradunak kontratazio organoak izendatzen dituen langileen laguntza izango du.

Kontratistaren Obra Ordezkariak kontratu honen xede diren antzeko obretan egiaztatzeko moduko esperientzia duen tituludun teknikaria izan behar du.

22. OBRAK HARTZEA ETA BERME EPEA

1.- Kontratua gauzatutzat hartuko da kontratistak bere xedea erabat gauzatu duenean, kontratuan ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta.

2.- Kontratuaren xede diren obrak amaituta eta, gehienez, hilabete bat pasa baino lehen, obren harreraren egintza formal eta positiboa egingo da, dagokion akta eginez.

3.- Halaber, **BI URTEko berme epea** egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako ezartzen dena.

Berme-epe horretan egin diren lanetan akatsak agertzen badira, kontratista izango da

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

horien erantzule. Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

4.- Nolanahi ere, berme-epea amaitu eta gero obra hondatzen bada eraikuntzak ezkutuan dituen akatsen ondorioz, eta akats horiek kontratistak kontratua bete ez duelako sortu badira, kontratistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du, hamabost urteko epean obraren harrera egiten denetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, inolako kalte edo galerarik ez bada agertu, guztiz azkenduko da kontratistaren erantzukizuna.

23. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZEHAPENAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratista, berari egotz dakizkieken arrazoiengatik, kontratuaren epe osoa edo, hala badagokio, epe partzialak betetzerakoan berandutzan erortzen baldin bada, Udalak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu ahal izango du. Kasu horretan bermea galdu egingo da. Horretaz gain, kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 0,60.- euro eguneko kontratuaren prezioan jasotako 1.000.- euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zehapena kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean, kontratazio organoak kontratua suntsitzeko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko zehapen berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZE PARTZIALARI BURUZ EDO PRESTAZIOAK AKATSEZ BETETZEARI BURUZ

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutze partziala epean bukatzen ez badu edo prestazioak akatsez betetzen baditu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua suntsitzea, kontratistak bermea galduko duelarik, edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko zehapena ezartzea.

C. EXEKUZIOKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEN EZ BADITU

Oso larritzat joko da exekuzio baldintza bereziak ez betetzea eta kontratuaren nahitaezko betebehartzat joko da, eta kontratua deuseztatzeko arrazoitzat hartuko da, baldin eta jarduera hori isolatua eta bideratzeko modukoa ez bada, eta kontratua deuseztatzea herri intereserakoa gomendagarritzat jotzen ez bada. Kasu horretan, beraz, dagokion zigorra ezarriko da.

Arau orokor gisa, zigorra kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 1ekoa izango da, baina kontratazio organoak, behar bezala arrazoituta, uste badu hutsegitea larria edo oso larria dela, % 5ekoak, edo legez gehienera jar daitekeen % 10ekoak izan daitezke, hurrenez

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

hurren. Hutsegitea behin eta berriz errepikatzea kontuan hartu ahal izango da hutsegitearen larritasuna baloratzeko.

Zigorrak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 192 artikuluaren baitan exekutatuko dira.

Esleipendunak exekuzioko baldintza bereziak bete dituen egiaztatu ahal izango du kontratazio organoak kontratua egiten ari den edozein unetan, eta dena den, obren harrera egiten denean frogatuko da.

D. KONTRATUAREN BERME EPEAN BETEBEHARRAK BETE EZ IZANARI BURUZ

Enpresa kontratistak, hari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ez badu betetzen bere obligazioa obra zuzendu edo konpontzeko eskainitako berme aldian, administrazioak era subsidiarioan exekutatu ahal izango ditu lanak kontratistaren kontura. Horrez gain, obra zuzendu edo konpontzen ez duen egun bakoitzeko penalitateak ezarri ahalko zaizkio, euro bat kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko (eguneko), kalte-ordainarekin batera, sortutako kalte eta galerengatik.

24. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan oro har kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak eta, era berean, Lege bereko 245. Artikuluan bereziki obra-kontratuetarako jasotakoak.

25. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Udalari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua suntsitzea eta suntsitze horren ondorioak zehaztea. Eskumen hauek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei jarraituz erabiliko dira.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Baldintza agiri honen arabera egingo den kontratua obra-kontratua da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroak 8ko 9/2017 Legearen 13. artikuluak xedatutakoaren

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

arabera. Administrazio izaera izango du, eta Administrazio Publikoen kontrataziorako dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta betiere kontratazio publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

1.1.- Baldintza ekonomiko-administratiboen agiri hau eta honi atxikitako gainerako agiri teknikoek.

1.2.- Lizitazioa eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duena; Sektore Publikoko Kontratuen azaroak 8ko 9/2017 Legea (SPKL); eta arauzko xedapen gisa: 773/2015, Errege Dekretua abuztuaren 28koa, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duena, aurrekoekiko kontraesanean ez dagoen guztian indarrean dagoena.

1.3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratuaren interpretazioak, ondorioek, betetzeak edo iraungitzeak eragin ditzaketen auziak ebazteko, eta auzi horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, agiri honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

27. JURISDIKZIO ESKUDUNA

1.- Kontratazio honi dagozkion ebazpen eta izapide-egintzei, azken horiek gaiaren oinarria zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabakitzen badute, eskubide eta interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute, aukerako izaeraz, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen bitartez araututako **administrazioarekiko birjarpen errekurtsoa** aplikatuko zaie, edo Administrazioarekiko Auziaren Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

Legean araututako **administrazioarekiko auzi errekurtsoaren** xede izango dira.

2.- Interesatuek gainerako izapide-egintzen aurkako jarrera alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

28. NORBERAREN DATUAK

Enpresa esleipendunak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Baldin, enpresa kontratistak edo azpikontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.

2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak hitzarmenaren helburua betetzeko bakar-bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.

4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.

5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa esleipendunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

esleipendunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.

b) Esleipendunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.

c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, esleipendunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

Enpresa kontratistak edo azpi kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

29. KONTRATAZIO PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140.1.4. artikuluan eta 15. Xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira (plegu honetako III eranskinean ezarritakoaren arabera).

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak ARDURAPEKO ADIERAZPENEAN ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek ARDURAPEKO ADIERAZPEN agirian zehaztutako helbide elektronikora.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataforman jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzunen, sinaduraren egunean

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

I. ERANSKINA: Ardurapeko adierazpena

“..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), Oiartzungo Hauartzaro ikastola eta Urmendi arteko espaloi baten proiektuko lanen kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Enpresa eskaintzaileak badauzkala kontratuaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasun juridikoa eta baliabideak.

II.- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen izenean jarduten duela eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko nahikoa duela sozietate horrek, edo bere kasuan, dagokion sailkapena duela, eta jarduera egiteko behar besteko baimenak dituela.

III.- Behean sinatzen duena eta ordezten duen enpresa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluak aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

IV.- Zerga eta Gizarte Segurantza obligazioak betetzen dituela, bai eta lan eta gizarte alorrean indarrean dauden xedapenak.

V.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatuta dagoela:

- ☐ **Bai,** SPKL legeko 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa betez.
- ☐ **Ez.**

VI.- Lizitatzailea inskribatuta [BAI] [EZ] dagoela Estatuko edo Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean, eta baiezko kasuan, ziurtagiria ofizioz eransteko baimena ematen duela. (jarri X dagokion kasuan).

- ☐ **Bai**
- ☐ **Ez.**

VII.- Kontratuaren esleipenduna izatera iritsiko balitz, bere onespena ematen duela kontratuaren lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte.

VIII.- Aurrekoez gain, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako bestelako

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen du eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduntzat proposatua den kasuan.

IX.- Atzerriko enpresaren kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

X. – Honako hau dela jakinarazpenak egiteko nire posta elektronikoaren helbidea:

** Kontuan izan, SPKLren 140.1.4.1 artikuluaren arabera, jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea "gaitua" izan behar dela, SPKLren Hamabostgarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, baldin eta kontratazio-organoak jakinarazpenak bitarteko horren bidez egitea erabaki badu.*

EMAIL:	…….

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Oiartzungo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimetzen.

- ☐ **Bai,**
- ☐ **Ez.**

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

IZEN-ABIZENAK		***SINADURA***
N.A.N	***DATA***	

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

Oiartzungo Udalak, kontratazioa ondo egiten dela kontrolatzeko erakunde hornitzaileen kontratazioa eta langileak kudeatzeko garaian, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera tratatzen ditu datuak. Datu pertsonalak organo judizialei eta auzitegiei, arloan eskumena duten Administrazio Publikoei eta Europar Batasuneko Egunkari Ofizialari jakinarazi ahal izango zaizkie. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezerezteko, eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamendu horren aurka jartzeko. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Udaletxeko helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago www.oiartzun.eus webgunean eskuratzeko.

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

II. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

“..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) hiria ....., helbidea:....., etab.), eta Oiartzungo Hauartzaro ikastola eta Urmendi arteko espaloi baten proiektuko lanen kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa

ADIERAZTEN DU:

I.-Ezagutzen dituela Proiektu Teknikoa bere edukiarekin, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ere, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II. Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako Baldintza Agirian zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela:..……..(…..Kodea).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela zehaztutako lan horiek egiteko, ……..... **euroko osoko prezioan (BEZ barne)**, honela banakatuta:

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

- Prezioa: ……..…… euro.
- BEZ aplikagarria (%.....): ……..…… euro.

Esandako prezioan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor: zergak, gastuak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

.....en, 2022ko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA.”

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

III. ERANSKINA

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.
    1. 1. Baldintza administratiboak:
        1. Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
            1. Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
            2. FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
            3. Nortasun agiri nazional elektronikoa
            4. Camerfirma (entitatea, herritarra).
        2. Egoera hauetako batean egotea:
            1. Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan
            2. Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
            3. Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

    2. 2. Baldintza Teknikoak:
       Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:
       http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/lic_elec_requisitos_tecnicos/es_def/index.shtml

    3. 3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298 telefonoan.

       Zerbitzu hori ekipoak konfiguratzeko eta bidalketak egiteko eskainiko da. Gomendagarria da, batetik ordenagailuetan konfigurazioak egin aurretik lehenbailehen beraiekin hitz egitea eta bestetik, espedienteko eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretik froga bat egitea.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak ARDURAPEKO ADIERAZPENEAN -ean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek ARDURAPEKO ADIERAZPENEAN agirian zehaztutako helbide elektronikora.

Nork Sinatua / Firmado por: ENERITZ ARRUTI OSANBELA - 44567303L
2022/06/14 12:17:51

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU122aa994-5b5e-4ca8-b8c7-075c5146459a**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***